



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko azaroaren 6a

128. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/ITP-00032. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak bultzatutako azpiegitura egituratzaileei buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (3. or.).
- 11-24/ITP-00033. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak herritarrei kalitatezko arreta presentziala bermatzeko darabiltzan politikiei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (4. or.).
- 11-24/DEC-00048. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna eta babesba adierazten baitizkie Estatuko zenbait autonomia-erkidego kolpatu dituen DANaren ondoriozko hondamendi izugarriak ukitutako eskualdeei. Eledunen Batzarrak onetsi du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/POR-00351. Galdera, 2024ko Nafarroako Egunaren ospakizunari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (5. or.).
- 11-24/POR-00352. Galdera, ustelkeriako eta delinkuentzia ekonomikoko delituak ikertze aldera Nafarroako Foru Ogasunak eta Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusiak itxi duten akordioari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (5. or.).
- 11-24/POR-00353. Galdera, osasun mentaleko arazoak edo adikzioak dauzkaten indarkeria matxistaren biktimentzako egoitza-baliabide berariazkoari buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (6. or.).
- 11-24/POR-00354. Galdera, tiro-poligonoak Bardean duen ingurumen-eraginari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (6. or.).
- 11-24/POR-00355. Galdera, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen aldaketari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (7. or.).
- 11-24/POR-00356. Galdera, telelaguntza aurreratuko zerbitzu berriari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (8. or.).
- 11-24/POR-00357. Galdera, autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko zerbitzuaren finantzaketa-aurreikuspeni buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (8. or.).

- 11-24/POR-00358. Galdera, Euskararen Egunerako eta Nafarroaren Egunerako aurrekontuei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (9. or.).
- 11-24/POR-00359. Galdera, 35+300 kilometro puntutik 40+900 kilometro puntura bitarte N 121 A errepidea 2+1 erako errepide bihurtzeko proiektuari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (9. or.).
- 11-24/POR-00360. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea finantzatzeko planari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00361. Galdera, kontingentzia arruntengatiko aldi baterako ezintasunak artatze aldera mutualitateekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00362. Galdera, Euskarabideak helduen euskalduntzeko eragileak koordinatzeari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00363. Galdera, Baso- eta ingurumen-eragilei buruzko oinarritzko Lege berriari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00364. Galdera, urgentziazko familia-harreraren bilakaerari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00365. Galdera, VGP Park Iruña Noainen eraikiko den Mobis baterien fabrikako obrei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00366. Galdera, gazte-langabeziako tasaren igoerari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00367. Galdera, Volkswagen taldean plantak ixteari eta lanpostuak murrizteari buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00368. Galdera, Valtierako Udaleko zeharkako diskriminazioko ekintzari buruzkoa. Javier Arza Porrás jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00369. Galdera, Volkswagenen plantaren egoerari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/POR-00370. Galdera, Volkswagen multinazionalak bizi duen egoeraren bilakaerari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (15. or.).
- 11-24/POR-00371. Galdera, Nafarroaren Eguneko ekitaldietarako aurrekontu-partida murrizteko arrazoiei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (16. or.).
- 11-24/POR-00373. Galdera, zenbait erkidegotan sarraskia eragin duen DANA dela-eta Nafarroako Gobernuak emandako erantzunari eta eskainitako laguntzari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (16. or.).
- 11-24/POR-00374. Galdera, etxebizitza eskuragarrien urritasuna konpontzeko tentsiopeko eremuak ezartzeari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (17. or.).
- 11-24/POR-00375. Galdera, 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuan NUPekiko finantzaketa-hitzarmenerako esleitutako zenbatekoari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (17. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/ITP-00032. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak bultzatutako azpiegitura egituratzailei buruzkoa

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egindako interpelazioa, Nafarroako Gobernuak bultzatutako azpiegitura egituratzailei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko Javier Lecumberri Urabayenek, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, 2024ko azaroaren 7an Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Foru Komunitatea aurrerabidea egiten ari da lurraldea egituratzea eta gizartearen garapen orekatu eta kohesionatua sustatzea ahalbidetuko duten azpiegituretan, hurrengo belaunaldien etorkizuna bideratuta.

Aldaketa sozioekonomiko handien testuinguru honetan, are garrantzitsuagoa da egungo eta etorkizuneko erronketarako prest egotea.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak bultzatutako azpiegitura egituratzailei buruzko interpelazio hau aurkezten diogu Lurralde Kohesiorako kontseilariari.

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

11-24/ITP-00033. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak herritarrei kalitatezko arreta presentziala bermatzeko darabiltzan politikei buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako interpelazioa, Nafarroako Gobernuak herritarrei kalitatezko arreta presentziala bermatzeko darabiltzan politikei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxiki-

ta dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Gobernuak herritarrei kalitatezko arreta presentziala bermatzeko darabiltzan politikei buruzko interpelazioa aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Nafarroan herritarrek erakundeengan duten konfiantzari eta zerbitzu publikoen emateaz duten hautemateari buruzko azken txostenean, nafarrek zioten administrazio publikoek arreta presentzial handiagoa ematea nahi dutela. Hori dela-eta, presentzialtasun hori bermatze aldera eta arretan kalitate handiagoa lortze aldera Nafarroako Gobernua zer neurri hartzen ari den jakin nahi dugu.

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-24/DEC-00048. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna eta babesa adierazten baitizkie Estatuko zenbait autonomia-erkidego kolpatu dituen DANaren ondoriozko hondamendi izugarriak ukitutako eskualdeei

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko urriaren 30ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna eta babesa adierazten die Estatuko zenbait autonomia-erkidego kolpatu dituen DANaren ondoriozko hondamendi izugarriak ukitutako eskualdeei.

2. Nafarroako Parlamentuak bere dolumina, atsekabe sakona eta babesa helarazten dizkie hildakoen familiei eta hurbilekoei.

3. Nafarroako Parlamentuak zauritu guztiei opa die laster senda daitezen, eta sakonki deitoratzen

ditu izan diren kalte materialak. Halaber, adierazten du Nafarroa prest dagoela une larri hauetan laguntzeko baliabide materialak eta giza baliabideak jartzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna eta babesa adierazten dizkie Espainiaren zati bat astindu duen egoera izugarri honetan eskuzabal-tasun osoz lanean ari diren pertsoneri".

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00351. Galdera, 2024ko Nafarroako Egunaren ospakizunari buruzkoa*AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako galdera, 2024ko Nafarroako Egunaren ospakizunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gáratek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lehendakari eta Berdintasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer planteamendu egiten du 2024ko Nafarroaren Egunaren ospakizunari begira?

Iruñean, 2024ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

11-24/POR-00352. Galdera, ustelkeriako eta delinkuentzia ekonomikoko delituak ikertze aldera Nafarroako Foru Ogasunak eta Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusiak itxi duten akordioari buruzkoa*AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako galdera, ustelkeriako eta delinkuentzia ekonomikoko delituak ikertze aldera Nafarroako Foru Ogasunak eta Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusiak itxi duten akordioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garatek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan datza eta zer helbururekin egin da ustelkeriako eta delinkuentzia ekonomikoko delituak ikertze aldera Nafarroako Foru Ogasunak eta Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusiak itxi berri duten akordioa?

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

11-24/POR-00353. Galdera, osasun mentaleko arazoak edo adikzioak dauzkaten indarkeria matxistaren biktimentzako egoitza-baliabide berariazkoari buruzkoa

MARÍA INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Inmaculada Jurío Macaya andreak egindako galdera, osasun mentaleko arazoak edo adikzioak dauzkaten indarkeria matxistaren biktimentzako egoitza-baliabide berariazkoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Inmaculada Jurío Macaya andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio lehen lehendakariorde eta Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusita Nafarroako Gobernuak osasun mentaleko arazoak edo adikzioak dauzkaten indarkeria matxistaren biktimentzako egoitza-baliabide berariazko bat iragarri duela, indarkeria matxistaren biktima jakin batzuentzako baliabide berariazko horrek zer onura ekarriko du?

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Inmaculada Jurío Macaya

11-24/POR-00354. Galdera, tiro-poligonoak Bardean duen ingurumen-eraginari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, tiro-poligonoak Bardean duen ingurumen-eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan urriaren 23an, asteazkena, Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Bartzordeak bisitan joan behar zuen Bardeako tiro-poligonora, poligonoa dagoen natur inguruneari egiten ahal zaizkion ingurumen-eraginak ezagutzeko.

Urriaren 17ko arratsaldean (osteguna), Defentsa Ministerioak Parlamentuari jakinarazi zion beretan behera geratzen zela, arrazoi operatiboak dire-

la-eta, bisita hori. Hortaz, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeko kideok ezin izan genituen ezagutu instalazio militar horrek dagoen natur ingurunean izan ditzakeen ingurumen-eraginak.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak zer balorazio egiten du Nafarroako Bar-

deako tiro-poligonoak bertako ingurumenean izan ditzakeen ingurumen-eraginak direla-eta?

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/POR-00355. Galdera, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen aldaketari buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen aldaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garridok, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zertan dira Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen aldaketa sustatzeko lanak, zeinen bidez konpondu nahi baitira gertuko txikizkako merkataritzaren arazoak eta sendotu nahi baitira landa eremueta-ko merkataritza eta Nafarroako artisautza?

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: José Miguel Garrido Sola

11-24/POR-00356. Galdera, telelaguntza aurreratuko zerbitzu berriari buruzkoa

MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, telelaguntza aurreratuko zerbitzu berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Telelaguntza aurreratuko zerbitzu berria ezaritzeak aurrerabide handi eta kualitatiboa ekarri du Nafarroako zaharren arreta hobetzeari begira.

Zein da zure departamentuaren balorazioa eta zein, halaber, erabiltzaileek zerbitzuari buruz egiten dutena?

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: María Olga Chueca Chueca

11-24/POR-00357. Galdera, autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko zerbitzuaren finantzaketa-aurreikuspeni buruzkoa

ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak egindako galdera, autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko zerbitzuaren finantzaketa-aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Isabel Aramburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreari, ahoz erantzun dezan:

"Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko zerbitzuak" izenarekin Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroan jasotzen den prestazioa dela-eta, honako hau galdetzen diogu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariari:

Zer finantzaketa-aurreikuspen darabil departamentuak zerbitzu horiek direla-eta (plaza-kopurua, zer hornitzaile-motari zuzenduko zaion eta finantzaketa zer epetan eginen den)?

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Isabel Aramburu Bergua

11-24/POR-00358. Galdera, Euskararen Egunerako eta Nafarroaren Egunerako aurrekontuei buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Euskararen Egunerako eta Nafarroaren Egunerako aurrekontuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak azaroaren 7ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik dago aurrekontua Euskararen Egunerako eta ez Nafarroaren eguneko abesbatzetarako eta musika bandetarako?

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-24/POR-00359. Galdera, 35+300 kilometro puntutik 40+900 kilometro puntura bitarte N 121 A errepidea 2+1 erako errepide bihurtzeko proiektuari buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, 35+300 kilometro puntutik 40+900 kilometro puntura bitarte N 121 A errepidea 2+1 erako errepide bihurtzeko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da N-121 A errepidea 35+300 kilometro puntutik 40+500 kilometro puntura bitarte 2+1 bide bihurtzeko proiektua?

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

11-24/POR-00360. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea finantzatzeko planari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea finantzatzeko planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren ele-dun José Javier Esparza Abaurrea jaunak honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer plan daukazu Nafarroako Ubidearen bigarren fasea finantzatzeko?

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

11-24/POR-00361. Galdera, kontingentzia arruntengatiko aldi baterako ezintasunak artatze aldera mutualitateekin sinatutako lankidetzahitzarmenei buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, kontingentzia arruntengatiko aldi baterako ezintasunak artatze aldera mutualitateekin sinatutako lankidetzahitzarmenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko

kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan irailean, Espainiako Gobernuak eta enpresaburuen elkarten eta ordezkari gehien dauzkaten sindikatuen ordezkariak –CEOE, Cepyme, CCOO eta UGT– akordio bat sinatu zuten pentsioen eta Gizarte Segurantzaren arloari dagokionez. Enplegurako eta negoziazio kolektiborako akordioaren garapenari buruzko puntu bat ere sinatu zen, jatorri traumatologikoko patologietan proba diagnostikoak egiterakoan osasun-zerbitzu publikoekin lankidetzan aritzeko orduan mutualitateek aldi baterako ezintasunetan izan beharreko inplikazioa dela-eta.

Eragile sozialek eta Gobernuak lan-ildoa bat ireki dute, enplegurako eta negoziazio kolektiborako akordioan ezarritakoaren arabera aldi baterako ezintasunen gaineko adierazleen jarraipena egin ahal izatea ahalbidetuko duena; halatan, kontrol-batzorde bat eratu da hitzarmen horien jarraipena eta ikuskapena egiteko eta aldi baterako ezintasunaren bilakaera analizatzeko.

Gizarte Segurantzaren eta mutualitateen arteko negoziazioak hilabeteak zeramatzan mahai gainean. Mutualitateek patologia-mota horietan izan beharreko eginkizuna birdefinitzea zen patronalak eta sindikatuek 2023ko maiatzean sinatutako Enplegurako eta Negoziazio Kolektiborako V. Akordioko puntuetako bat.

Hemendik aurrera, lankidetzaren hitzarmenak ezartzen ahalko dira autonomia-erkidegoetako osasun departamentuen, mutualitateen eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren artean.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak lankidetzaren akordiorik egin nahi al du, adierazitako akordio horretan jasotzen denaren arabera, mutualitateekin kontingentzia arruntetako aldi baterako ezintasunak artatzeko?

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

11-24/POR-00362. Galdera, Euskarabideak helduen euskalduntzeko eragileak koordinatzeari buruzkoa

ENKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Euskarabideak helduen euskalduntzeko eragileak koordinatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Memoria eta Bizikidetzaren, Kanpo Ekintza eta Euskara Departamentuari eskatzen dio Osoko Bilkuran honako galdera honi ahoz erantzun diezaion.

Nafarroan helduen euskalduntzeko sisteman dauden eragileak ugari dira, eta eragile guztiak elkarlanean aritzea beharrezkoa da, sektorea kohesionatzeko eta indartzeko.

Zer asmo du Euskarabideak epe laburrean helduen euskalduntzeko eragileak koordinatzen hasteko?

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-24/POR-00363. Galdera, Baso- eta ingurumen-eragileei buruzko oinarritzko Lege berriari buruzkoa

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, Baso- eta ingurumen-eragileei buruzko oinarritzko Lege berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gorte Nagusiek Baso- eta Ingurumen-eragileei buruzko oinarritzko Legea onetsi dute 2024ko urriaren 30ean. Nafarroan urtarrilaren 30eko 7/2019 Foru Dekretuak jasotzen du Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Zerbitzuko langileen araubide berezia.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Baso- eta Ingurumen-eragileei buruzko oinarritzko Legeaz?

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

11-24/POR-00364. Galdera, urgentziazko familia-harreraren bilakaerari buruzkoa

MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, urgentziazko familia-harreraren bilakaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Esku-bide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu-kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Harrera Programa babesgabeziaren egoteagatik Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zaintzapean dauden neska-mutikoentzat dago pentsatuta. Neska-mutiko horiek beren familiengandik bereizi egin behar izan ohi dira, arretarik eza, abandonua edo jokabide arduragabeak pairatzen zituztelako; hori dela-eta, legedian familia-harrerarako zenbait modalitate jasotzen dira, harreraren xedea eta iraupena zein diren. Galdera gau, halere, urgentziazko familia-harrerari buruzkoa da.

Zure departamentuak zer balorazio egiten du aurten urgentziazko familia-harrerak duen bilakaerari buruz?

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: María Olga Chueca Chueca

11-24/POR-00365. Galdera, VGP Park Iruña Noainen eraikiko den Mobis baterien fabrikako obrei buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, VGP Park Iruña Noainen eraikiko den Mobis baterien fabrikako obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujo Amezagak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak VGP Park Iruña Noainen eraikiko den Mobis baterien fabrikako obrak bisitatu zituen orain dela gutxi.

Hori dela-eta, honako hau galdetu nahi diogu: aurreikusitako egutegiaren arabera egiten ari al dira VGP Park Iruña Noainen eraikiko den Mobis baterien fabrikako obrak, espero ze erritmoan egiten ari al dira?

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-24/POR-00366. Galdera, gazte-langabeziako tasaren igoerari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, gazte-langabeziako tasaren igoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuo Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu gazte-langabezia tasak Nafarroan 2021etik izan duen igoera dela-eta? zer neurri hartuko duzu egoera aldatzeko?

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/POR-00367. Galdera, Volkswagen taldean plantak ixteari eta lanpostuak murrizteari buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, Volkswagen taldean plantak ixteari eta lanpostuak murrizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ezagutu diren albisteen arabera, Alemanian dituen hamar plantetatik gutxienez hiru ixtea eta lanpostu-kopurua murriztea aurreikusten du Volkswagen taldeak. Hori ikusita, erabaki horiek zure ustez zer eragin izan dezakete Nafarroan?

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

11-24/POR-00368. Galdera, Valtierako Udaleko zeharkako diskriminazioko ekintzari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrask jaunak egindako galdera, Valtierako Udaleko zeharkako diskriminazioko ekintzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrask, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro García andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Urriaren 26an, zenbait egunkarik argitaratu zuten salaketa bat aurkeztu dela, haurra jaiotzeagatiko laguntzak emateko Valtieran egin den deialdi bat diskriminatzailea izan daitekeelako. Deialdiaren oinarriak irakurrita, ikusten da, bai, baldintzetako bat zeharkako diskriminazioaren kontzeptuan sar litekeela. Izan ere, eskatzaileek "Valtierako herrian erroldatuta egon beharko dute, etenik gabe egon ere, haurra jaiotzeagatiko laguntzaren eskaria erregistratu den egunaren aurreko 20 urteetan gutxienez ere". Gogora dezagun zeharkako diskriminazioa dagoela esan daitekeela baldin eta, lege, printzipio, jokabide edo programa batek, itxuraz neutroa izan arren, pertsona edo kolektibo bat desabantaila egoeran jartzen badu.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten diogu Nafarroako Gobernuari:

Zer balorazio egiten duzu Valtierako Udalaren jokabide hori dela-eta? Zer neurri hartuko duzu horren ondorioei aurre egiteko eta zeharkako diskriminazioko horren antzeko neurririk har ez dadin Nafarroan?

Iruñean, 2024ko urriaren 30an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrask

11-24/POR-00369. Galdera, Volkswagenen plantaren egoerari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Volkswagenen plantaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak azaroaren 7ko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Lehendakariak zer balorazio egiten du Volkswageni buruzko azken albisteez? Nafarroako Gobernua zer neurri ari da hartzen bermatze aldera plantako eta enpresa laguntzaileetako lanpostuak mantentzen direla?

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/POR-00370. Galdera, Volkswagen multinazionalak bizi duen egoeraren bilakaerari buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Volkswagen multinazionalak bizi duen egoeraren bilakaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera

hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Volkswagen enpresak egoera kezagarria du Alemanian. Litekeena da zenbait lantegi ixtea eta milaka lanpostu suntsitzea.

Volkswagen Navarra enpresako zuzendaritzak onartu du multinazional alemaniarrak arazo larriak dituela, baina era berean adierazi du Nafarroako lantegia "ez dagoela" aplikatu nahi den aurrezpenaren "fokuan". "Ez gara arazoaren parte, konponbidearen parte baizik", baieztatu zuen Volkswagen Navarrako Giza Baliabideetako zuzendariak.

Zenbaterainoko kezka du Gobernuak Volkswagen multinazionalak Alemaniako fabrikazio-lantegietan bizi duen egoeraren bilakaera eta horrek Nafarroako lantegian izaten ahal dituen ondorioak direla-eta?

Iruñean, 2024ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-24/POR-00371. Galdera, Nafarroaren Eguneko ekitaldietarako aurrekontu-partida murrizteko arrazoiei buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroaren Eguneko ekitaldietarako aurrekontu-partida murrizteko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako lehendakariak azaroaren 7ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Zergatik murriztu zuen ahalik eta gehien lehendakariak Nafarroaren Eguneko ekitaldietarako aurrekontu-partida, ekitaldi ugari finantzaketarik gabe utzita?

Iruñean, 2024ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/POR-00373. Galdera, zenbait erkidegotan sarraskia eragin duen DANA dela-eta Nafarroako Gobernuak emandako erantzunari eta eskainitako laguntzari buruzkoa

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, zenbait erkidegotan sarraskia eragin duen DANA dela-eta Nafarroako Gobernuak emandako erantzunari eta eskainitako laguntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariari zuzendua, 2024ko azaroaren 7ko Osoko Bilkurako gai-zerrendan sar dadin:

DANak sarraskia eragin du gure herrialdeko zenbait erkidegotan, eta suntsipena eta hainbat hildako eta desagertu utzi ditu atzean.

Zer erantzun eman du Nafarroako Gobernuak eta zer laguntza eskaini du?

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-24/POR-00374. Galdera, etxebizitza eskuragarrien urritasuna konpon- tzeko tentsiopeko eremuak ezartzeari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, etxebizitza eskuragarrien urritasuna konpon-
tzeko tentsiopeko eremuak ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak uste al du tentsiopeko eremuak ezarrita etxebizitza eskuragarrien urritasuna konponduko dela?

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-24/POR-00375. Galdera, 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuan NUPekiko finantzaketa-hitzarmenerako esleitutako zenbatekoari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuan NUPekiko finantzaketa-hitzarmenerako esleitutako zenbatekoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina López Mañero andreak honako gaurkotasun handiko galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako lehendakariaren iritziz 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuan NUPekiko finantzaketa-hitzarmenerako esleitutako zenbatekoa nahikoa izanen al da NUPen beharrak asetzeko?

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

